



PARTAIDETZA

PARTAIDETZA ENPRESAK

ESKAERAREN TXOSTENA OSATZEKO GIDA



OHARRAK:

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskabidearen txostenak jorratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatioan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da. Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.

Helburua

HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena “Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partidetza sustatzeko programa” arautzen duen 2018ko maiatzaren 22an Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren II. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Enpresan aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Indartuko eta gartuko den eremua: antolakuntza berrikuntza, Lehiakortasuna eta jasangarritasuna, jarritutasuna eta belaunaldi aldaketa, transmisioa, gizate ekonomia, enpresa-berrigituratze eta berrabiatzea.
- Hartzaileak (pertsonak)
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Aplikazio eremua



Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Erabiliko diren, bere kasuan Departamentuak aurrez ezarritakoak, ikasitako irakaspenetan oinarritutako tresnak eta metodologiak
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

NORK

- Proiektuan parte hartuko duten entitateen deskribapena
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta bitarteko materialak.



Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:

- Proiektuaren bat egitea enpresak pertsonen partaidetza sustatzeko dituen estrategia eta helburuekin
- Izaera eraldatzailea: esperimendua jomuga izatea, proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Landuko den/diren eremua/k (kudeaketa, erabaki estrategikoa, emaitzak, kapitala), zergaitia eta nola garatuko den
- Parte hartuko duten pertsonen azalpena (pertsona kopurua, departamentuak, erantzunkizun maila...)
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, barruko nahiz kanpoko elkarlana, arloen artekoa eta garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak, sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia....
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta entitateak (planak, eta abar), zein esperientzia, entitatearen jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurtzeko sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Jardunaren iraunkortasuna



Barne pertsonala

BARNE PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten entitatearen pertsonak erantsi aplikatibora

KANPO PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten entitateko pertsonak erantsi aplikatibora



Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana

Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak